

Primeran pasa... pasatu gabe

Aiako Harriaren magalean, Oartzunen, urriaren lehen Haurtzaro Ikastolak antolatuta ospatuko da aurtengo Kilometroak, *Ingo yeu! Ingo neu!* lemapean. Ikastola aitzindariä izan da zenbait proiektu garatzen eta Kilometroetan ere lehen pauso bat emango dute: edozein jaietan eta orokorrean gizartean dagoen drogen kontsumoaren inguruko kezkarri helduz, proiektu bat garatuko haitute; *Primeran pasa, pasatu gabe.*

ITSASO IBARRA

Argazkiak: Dani Blanco



Haurtzaro Ikastolako haurrak jolastokian Kilometroetako logoarekin.

1967AN HERRITAR TALDE BAIEN bultzadarekin sortu zen Haurtzaro Ikastola. Etxepe batean etnan zizuzten lehen-dabiziko eskolak Ines Olaziregi eta Arantxa Madariaga irakasleek. Elizaren babesarekin sortu zen ikastolak laster hartu zuen izaera herrikoia, elizarik bereizten joan eta herritarren artean bono bilketa egin baitzuten. Egun gurasoek eta langileek osaturiko kooperatiba da Haurtzaro Ikastola. 1977an oinartizko eraikina egin zuten eta 1989an Derrigotrezko Bigarren Hezkuntzako eraikina gaineratu. 0-18 urte arteko 850 ikasle biltzen ditu ikastolak.

Hobetuz eta egokituz

Hezkuntzak dinamikoa eta eguneratua izan behar duela uste dute Haurtzaro Ikastolako kideek eta ideia honi

jarrainuz malgutasuna, errealismoa eta integrazioa dira beren hezkuntza proiektuaren ardatzetako batzuk. Eguneko beharrei egokitzen zaion eta errealitateari aurre egiten dion ikastola da Haurtzaro; komunikazio eta informazioaren garapenean aitzindariak izan ziren bere garaian, baina Eleanitz proiektuan ere, eta gizarteko errealitate bati helduz, droga-menpekotasunaren gaia lanzen dute DBHko ikasleekin Aska-ginza erakundearen laguntzaz.

"Drogak larrugorrian"

Askagintza erakundeak hamar urte baino gehiago daromatza udaletxe eta ikastetxeekin elkarlanean Osasun Hezikera eta Droga-menpekotasunaren prebenzio programak gauzaraz. Gipuzkoako 25 bat ikastetxeretan dabiltza lanean *Drogak larrugorrian* programarekin; drogak zer diren, kontsumo motak eta diruzten alde onak nahiz txarrak lanzen dituzte, besteak beste.

Gaiarekin arduratua dagoen ikastetxera izan ohi da Askagintzari gaia lantzeko eskaera egiten diona. Txus Congil Askagintza taldeko kideak adierazi duenez, "askotan ikastetxetatik deitzen gaituzte, drogak txarrak direla eta kalteak dituztela esatera joareko, baina, gure irizpidea ez da debekatzailea, hezitzailea baizik".

Programa honetan ikastola osatzen duten hiru taldeek hartzen dute parte; ikasle, irakasle eta gurasoek. Lehendabizi ikastetxeko klaustro eta gurasoekin biltzen dira, ikasleekin zer gai landuko dituzten azalzeko eta orokorrean errealitatearen azterketa egiteko: egoera zein den, substantziak, nerabeen inguruko azterketa. Jokabide batzuk zehazten dira gaia inguruan. Ondoren, tutoreekin biltzen dira, azken finean beraiek baitira gaia ikasleekin landuko dutenak. Hala, unitate didaktikoak, galdera-sortak eta erabiliko duten materiala erakusten dizkiere.

Babeslea: Lekeitioko Udala



Lekeitioko Udala
Euskarazko komunikabideen alde



www.lekeitio.com

Tutoreek Askagintzako adiruekin prestatutikoa ikasleekin lantzen dute tutoretza edota erika orduetan. Drogen gaiarekin batera, bizikiderzan eragiten duten beste hainbat alor ere jorratzen dituzte; komunikazioa, alde presioa, arauak, adiskidantza... Azkeneko saioan, berriz, Askagintzako adituak hurbiltzen dira ikasleentzara, ikasleen zalantza eta galderak erantzuteko. Txus Congilén iritziz, "informazio nahasketa handia dago. Drogak txarrak direla edo drogak onak direla entzuten dute beraiek. Eta ez da hala; drogen erabilera da arazoa. Informazio eta formazio bidez, erre edo edan nahi badute zertan dabilizan jakitea da helburua, hots, drogen aurrean arduraz jokatzeko gai izatea".

Hautzaron, programa txertatua

Hautzaro Ikastolan programa hau jada DBHko curriculumean barneratuta dute. Errealismoa eta integrazioa dira Hautzaro Ikastolaren printzipioetatiko bi eta horrexegatik hasi ziren gaiak ikastolan lantzen. "Gu ikastolan edo inguruan ez gara topatu arazo berezi batekin. Ez gara hasi arazoa ikusi dugulako, kaleko errealitatea dela-

ko baizik. Hezkuntzan gauza horiek teoriatan integratzen ari dira eta praktikan ere zerbait egin behar da. Louan geratzen bazara, arazoak jan egiten zaitu", dio Arantza Manterola ikastolako lehendakariak. Sorkunde Lekuona, Hautzaro Ikastolako zuzendariaren hitzetan, "esfortzu bat da gaia lantzen, eskola orduz kanpoko koordinazioa

"Hiru ardatz helarazi nahi ditugu: zure osasuna zaindu, kontsumitzen jakin eta errespetatu natura eta ingurunea"

IGOR ELORTZA

eskatzen du, formazio bat, baina gure printzipioekin bat dator, integrazioarekin. Ez du balio eskola integrala gaitela esateak, eta gero ezer ez egiteak. Mereziduen esfortzua da".

Zazpi urte daramatzate, 12tik 16ra bitarteko gazteekin eta euren gurasoekin gaia lantzen. Sorkunde Lekuonak dioenez, "adin horretako ikasleak dro-

gen mundua deskribitzen hasten dira eta posiriboa da gaia lantzea. Horrek ez du esan nahi ez dutela droga probatuko, baina hori ez da lortu nahi duguna. Helburua, drogekin modu arduratsuan bizitzen jakitea eta osasuna ez kaltetzea da". Gaiaren lanketa interesgarritzat eta beharrezkorzat dute Hautzaro Ikastolan. Gurasoen parte hartzea handia izaten da eta ikasleek ere gaia serio hartzen dutela azaldu du zuzendariak. Ikastolan lantzeaz gain, Kilometroetan ere landuko dute gaia.

"Primeran pasa, pasatu gabe"

"Gizarrea aldatu den eran dena aldatu da eta jaiak dimentsio izugarria hartu du", dio Igor Elortza Kilometroetako koordinatzaileak. Beste edozein jaietan gertatzen den moduan, gazte askok jai hau alkoholarekin lehen probak egiteko erabiltzen dutela badakite antolatzailuek era kezka horri heldu nahi izan diote. Horretarako, Askagintzarekin batera *Primeran pasa, pasatu gabe* proiektua prestatu dute.

Proiektu honekin drogekin pasatzen den gazteari, pasatu gabe ere ondo ibiliko dela erakutsi nahi diote: "Hiru ardatz helarazi nahi ditugu: ➔

Eraikin berriaren premia

Hautzaro Ikastolaren oinarriko eraikina 1977koa dute eta 1989an DBH-rako beste eraikin bat gehitu zuten. Matrikulazio kopuruak gorantz egin duen bezala eta hezkuntza legeak aldatu diren heinean gela berriak sortzen joan dira. Horretarako, ikastolak berak zituen etxepeko gelak itxi dituzte. Egun ordea, espazio falta dute ikastolan eta Kilometroetan lorturiko diruarekin eraikin berria egin nahi dute: "Kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugu, zenbait proiektutan aitzindariak gara, baina horrek baliabideen beharra dakar. Giza baliabideak onak ditugu, borondate ona, baina espazio gehiago behar dugu. Matrikulazioa gorantz doa eta jende horri baliabide fisiko onak eskaini behar zaizkio", dio Arantza Manterolak. Eraikin berriarekin antolamendu hobea eman nahi diote ikastolari, zerbitsu guztiak eraikin zaharrean behar bezala jarri.

Baina eraikin berria egitea ez da duten inbertsio bakarra. Azken bi



Hautzaro Ikastolaren jolasakoa.

urtetan inbertsio handia egin dute gela berriak eginez eta jangela hiru-koitzuz. Hala, bitarteko ekonomikoak ziurtatu nahi dituzte.

Xede ekonomikoekin batera badi-tuzte bestelako helburuak ere. Ikastolen arteko elkarkidetzak bultzatu nahi dute, Iparraldeko eta Nafarroako ikastolekiko elkartasun bideak sustatuz. Bestalde, herrian naturaren inguruan sortzen ari den proiektuaren alderdi hezitzaileak indartu nahi dituzte.

Herritarrek bultzatu eta lagundutako ikastola da Hautzaro. Hala, herriarekin izan duen harremana trinkotu eta ikasle ohiekin nahiz gainerako laguntzaileekin duten harremana sendotzeko asmoa dute. Hain zuzen ere, herritarrek omenduko dituzte urte hauetan guztietan jaso duten laguntza eskertzeko. Horretarako, garaian garaiko lehendakaria omenduko da, garaia bakoitzeko herritarrei eskerrak emanez.